

Familiaren eta eskolaren arteko komunikazioa

Familiak Hezkuntza-zentroekin duten lehen harremana haurra eskolatzean sortzen da, haurrek oraindik urte gutxi dituztenean. Momentu horietan eta, batez ere, ikasturtearen hasierako bileretan, Hezkuntza-zentroek, hezkuntza helburua eta horiek lortzeko prozeduren inguruko informazio eskuragarria izan eta helarazi beharko diete familiei. Informazio hori igortzeko modurik aproposena, aita-amekin ikastaro hasieran antolatzen diren bilerak izan ohi dira.

Gurasoek bere haurren heziketaz arduratuko diren profesionalengan konfiantza hartu dutenean komunikazio sendoagoa izatea posible izango da, informazio interesgarria partekatuz. Betiere, familiak, hezkuntza prozesua ongi burutzeko gai eta konpetenteak direla kontziente izanik, eta irakaskuntzaren profesionalak beraien haurrei buruz eman diezaieketen informazioa errespetatuz. Nahiz eta beraiek izan, kasuan kasu, egin beharrekoari buruz erabakitzeko ardura dutenak.

Familiak, irakasleen eguneroko lana, jarduera profesionaltzat hartu behar dute eta hori oso garrantzitsua da. Horrezaz gain, beharrezkoa da familiak argi izatea, irakasleek ikasgelan egiten duten lana egituratutako programa baten arabera dela eta ebaluatuko diren helburuak ondo zehaztuak daudela.

Familiaren eta ikastetxeen arteko harreman sendo batetan garrantzitsua da:

1. Hezkuntza-lanaren informazioa izatea:

- profesionalen formazioa eta gaitasuna ezagutu
- Hezkuntza Sistemaren helburuak ezagutu
- eremu desberdinetako hezkuntza curriculumak ezagutu
- profesionalak familiekiko zer nolako prestutasuna duten ezagutu

2. Profesionalei, gure familiaren inguruko informazioa eskaintzea:

- informazio hau ikasturte hasieran eta ikasturtean zehar helarazi
- irakasleekin komunikazio bide bat eraiki eta mantendu

3. Irakasleen hezkuntza eginkizunean konfiantza izatea:

- ez bota errurik irakasleei, beraien esperientzian konfiantza izanik jokatu
- ez epaitu
- gogoratu irakasleek ez dutela guraso bezala jardun behar

- ez garatu harreman sakonik, gerora horrek gehiegizko igurikapenak sor ditzake eta frustrazioa ekar dezake.

4. Segurtasuna eta errespetua azaltzea:

- elkarrizketak hezkuntza eremura mugatu
- arazo baten aurrean ez eskatu berehalako erantzun bat. Konponbidea, bestelako profesionalak kontsultatzeko prozesu gisa ulertu
- etxean seme-alabekin duzuen denborari garrantzia eman, haiei joku eta jarduera anitzak eskainiz
- ikasgelako haurren inguruan izan dezakezuen informazioa edota hauek erreferentzia izanik egin ditzazkezen konparaketak saihestu

Laburpena

Familiek jakin behar dute zeintzuk diren beraien funtzioak, eta zeintzuk irakasleenak heziketa prozesu honetan. Horretarako, familia-eskola eta eskola-familia harremanak, egituratua, jarraia, elkarrekikoa eta errespetuan oinarritua izan behar du.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea
Juan Luís Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia